DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. SOZIETATEAK ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEAK ANTOLATZEN DITUZTEN JARDUERETARAKO ESZENATOKIAK, HESIAK, HARMAILAK ETA ASKOTARIKO MATERIALA ALOKAIRU BIDEZ HORNITZEKO, IPINTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZEIN LAGUNTZA LOGISTIKOKO ZERBITZUEN LOTE BIDEZKO KONTRATAZIORAKO LIZITAZIOA, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKOA, ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ORRIARENA

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA
2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOAK
3. ESLEITZEKO PROZEDURA
4. ALDAERAK
5. KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA
6. KONTRATUAREN IRAUPENA
7. ELEMENTU EKONOMIKOAK
8. PREZIOA ORDAINTZEA
9. PREZIOAREN BERRIKUSKETA
10. PUBLIZITATEA
11. BEHIN BETIKO BERMEA
12. KONTRATATZEKO GAITASUNA
13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA
14. NEGOZIAZIO FASEA
15. NEGOZIAZIOA AMAITZEA ETA BEHIN BETIKO ESKAINTZAK AURKEZTEA
16. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
17. KONTRATAZIO MAHAIA
18. ADITUEN BATZORDEA
19. KONTRATUA ESLEITZEA
20. KONTRATUA HOBETU ETA FORMALIZATZEA
21. KONTRATUAREN ARDURADUNA

IFK-CIF Q2000541I

22. KONTRATUA GAUZATZEA

23. KONTRATUKO BETEBEHARRAK

24. DATU PERTSONALEN BABESA

25. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

26. ERANTZUKIZUNA

27. ASEGURUAK

28. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

29. ZEHAPENAK

30. KONTRATUA LAGATZEA

31. AZPIKONTRATAZIOA

32. KONTRATUAREN ALDAKETAK

33. HARRERA

34. KONTRATUA ETETEA

35. KONTRATUA AMAITZEA

36. DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ESKUMENAK

37. ARAUBIDE JURIDIKOA

38. JURISDIKZIOA

I. Eranskina. Abal eredua.

II. Eranskina. Adierazpenen notario aktaren eredua, lizitatzaileak eskatzen den kaudimena ziurtatzeko edo gutxieneko bitartekoak kontratura atxikitzeko konpromisoa betetzeko beste entitate batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili behar baditu

III. Eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

IV. Eranskina. Giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa.

V. Eranskina. Aitorpen erantzulea, enpresako lanpostuen % 2a desgaitasunen bat duten pertsonentzat uzteko betebeharra eta berdintasun-plana izateko betebeharra betetzen direla adierazteko.

VI. Eranskina. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

IFK-CIF Q2000541I

VII. Eranskina. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitorpen erantzulea.

VIII. Eranskina. Langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa

IX. Eranskina. Gehieneko prezio unitarioak eta gehieneko puntuazioa

IFK-CIF Q2000541I

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. SOZIETATEAK ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEAK ANTOLATZEN DITUZTEN JARDUERETARAKO ESZENATOKIAK, HESIAK, HARMAILAK ETA ASKOTARIKO MATERIALA ALOKAIRU BIDEZ HORNITZEKO, IPINTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZEIN LAGUNTZA LOGISTIKOKO ZERBITZUEN LOTE BIDEZKO KONTRATAZIORAKO LIZITAZIOA, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKOA, ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ORRIARENA

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA[1]

Lizitazio honen objektu barruan daude DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK eta VICTORIA EUGENIA, S.A. eta SAN TELMO MUSEOA, S.A. sozietateek beren kabuz edo lankidetzan antolatutako jardueretan erabiliko diren eszenatoki, hesi, harmaila eta askotariko materialak alokairu bidez hornitu, ipini, muntatu eta desmuntatzeko zerbitzuak zein laguntza logistikoko zerbitzuak, loteka banatuak. Jarduera horiek aire zabalean, lokaletan edo bestelako espazio publiko zein pribatuetan antolatu ahalko dira, Klausula Administratibo Berezien Orri honetan eta Preskripzio Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu mistoa da, hornidura-kontratu bati eta zerbitzu-kontratu bati dagozkien prestazioak dituelako, eta haren araubide juridikoa Klausula Administratibo Berezien Orriko 37. klausulan jasota dago.

Zehazki, lizitazio honen xede izango dira Preskripzio Teknikoen Orriko Bigarren Klausulan deskribatutako materialak alokairuan hornitzea, kokatzea, muntatzea eta desmuntatzea, bai eta Agiri horren Hirugarren Klausulan deskribatutako laguntza logistikoko zerbitzuak ere.

Zehazki, kontratuaren xedea honako lote hauetan banatuta dago:

1. Lotea:

Erreferentzia zenbakia:

1. Eszenatoki eta eszenatoki osagarrietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin, m^2-tan.
2. Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x1 m-koak, unitatetan.
3. Tarima modularrak (tolesgarriak/hanka finkokoak), 2x0,50 m-koak, unitatetan.
4. Eszenatokietarako estaldurak, m^2-tan.
5. Harmailak, eserlekutan.
6. Harmaila goratuak, eserlekutan.
7. Eszenatokien atzealdeko eta aldamenetako itxiturak, unitatetan.
8. Eszenatoki eta tarimetarako zango babesak, ml-tan.
9. Babes barandak (babes listoiak), ml-tan.

[1] *Orri honetan "kontratua", "esleipenduna", "kontratista" eta horiei lotutako guztiaren gainean egiten den aipamenak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA eta SAN TELMO MUSEOA SArekin sinatzeko lote bakoitzari dagokion kontratu bakoitzari egindakotzat hartuko dira.*

IFK-CIF Q2000541I

10. Ibilgarri estaliak, 2x2 m tamainakoak, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin, unitatetan.
11. Ibilgarri estaliak, 4x2 m tamainakoak eta 4,5 m altuerarekin, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin, unitatetan.
12. Ibilgarri estaliak, 2x1,33 m tamainakoak gutxi gorabehera eta 2,35 m altuerarekin, atzeko eta aldamenetako itxiturarekin, unitatetan.
13. Eszenatokirako eskailerak (3.etik aurrera), unitatetan.
14. Eszenatokira iristeko arrapala, ml-tan.
15. Moketa babes plastikoarekin, m^2-tan.
16. Moketa babes plastikorik gabe, m^2-tan.
17. Linoleoa, eszenatokiko plataforma eta beste batzuk estaltzeko, m^2-tan.
18. Zutoinetarako kontrapisuak, 100 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.
19. Zutoinetarako kontrapisuak, 350 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.
20. Zutoinetarako kontrapisuak, 600 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.
21. Zutoinetarako kontrapisuak, 900 kg-ra arteko truss-ak g.g.b., unitatetan.

2. lotea:

Erreferentzia zenbakia:

1. Metalezko hesiak, 1 m-ko altuera eta 2,20 m-ko luzerarekin, unitatetan.
2. Metalezko hesiak, 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokalorik gabe, ml-tan.
3. Metalezko hesiak, 2 m-ko altuera eta 3-3,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokaloekin, ml-tan.
4. Metalezko hesiak, 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokalorik gabe, ml-tan.
5. Metalezko hesiak, 1,8 m-ko altuera eta 1,5 m inguruko luzerarekin, hesiaren azpialdetik muntaketa espazioaren zoladurara doan distantzia estaltzeko babes zokaloekin, ml-tan.
6. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin. luzearen arabera, 75 m-ra arte.
7. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin. luzearen arabera, 150 m-ra arte.
8. Aparkatzeko barruti eta esparru erreserbatuak, balizatzeko zinta bidez elkarri lotutako 1 m x 2,2 m-ko hesiekin eginak eta dagokien trafiko seinale normalizatuarekin. luzearen arabera, 300 m-ra arte.
9. PVC hesiak, 1,05 m-ko altuera eta 1 m-ko luzerarekin, unitatetan.
10. Jende oldeen aurkako hesia, atedun moduluekin eta kableak igarotzeko moduluekin.
11. Banderatxoak ipintzeko euskarriak, unitatetan.

IFK-CIF Q2000541I

12. 5, 2,5, 2 eta 1 m-ko altuerako mastak, dagokien euskarri edo oinekin eta banderak ipintzeko zirgiloekin (beharrezkoa balitz), unitatetan.
13. Kableak estaltzekoa, unitatetan**.**
14. Balizatzeko zinta(250 m-ko luzera), bilkaritan.
15. Errafia beltza hesiak estaltzeko, ml-tan**.**

3. lotea:

Erreferentzia zenbakia:

1. 10, 15 eta 20 m-ko portikoak dituzten karpa modularrak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, m^2-tan.
2. 5x5 m-ko karpak, jaima motakoak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
3. 5x4 m-ko bi isuriko karpak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
4. 3x3 m-ko karpak, jaima motakoak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
5. 3x3 m-ko karpa tolesgarriak, lurrera ainguratutako euste sistemarekin (pika edo tako zabalgarriekin) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak beharko dira, dagokien estaldurarekin), eta dagozkien itxitura gortinak, unitatetan.
6. 3x4,5 m-ko karpa tolesgarriak.
7. 3x6 m-ko karpa tolesgarriak mastertent motakoak.
8. Karpetarako zorua, m^2-tan.
9. Karpetarako moketa babes plastikoarekin, m^2-tan**.**
10. Karpetarako moketa babes plastikorik gabe, m^2-tan.
11. Karpetarako kontrapisuak, 100 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
12. Karpetarako kontrapisuak, 350 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
13. Karpetarako kontrapisuak, 600 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
14. Karpetarako kontrapisuak, 900 kg-ra arte g.g.b., unitatetan.
15. Barrualdean banaketak sortzeko manparak, 120x200 eta 200x200 cm inguruko tamainarekin, unitatetan.
16. Gurpildun esekilekuak eta dagozkien pertxak (25 esekileku bakoitzeko), unitatetan.
17. Ispiludun altzariak, unitatetan.
18. Mostradoreak, 100x50x100 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin, unitatetan.
19. Barra mostradoreak, 190x45x110 cm ingurukoak, barrualdeko apalekin, unitatetan.
20. Egur zuriz egindako txarteldegi eramangarria, 1 m x 1,20 m inguruko neurri eta 2,10 m inguruko altuerarekin, atzealdeko atearekin.

IFK-CIF Q2000541I

21. Atedun armairuak, 100x45 cm inguruko neurri eta 158 cm inguruko altuerarekin, apalekin eta giltzaz ixtekoak.
22. Zuzentze zutoinak zinta barneragarriarekin, unitatetan.
23. 100 litroko kubo beltzak, heldulekuekin eta hondakinak biltzeko dagokien poltsarekin, unitatetan.

Prozedura hontara gonbidatutako lizitatzaileek lote batera, batzuetara edo guztietara aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak. Hala ere, eskaintzak banakakoak izan behar dira, eta ez da eskaintza integratzailerik onartuko.

Hiru loteen esleipena independentea izango da, eta esleipendun bati edo batzuei esleitu ahal izango zaizkie, bakoitza bere aldetik.

Kontratuaren xede diren prestazioak entitate kontratatzaileek errekerimendua egin ondoren gauzatuko dira, Preskripzio Teknikoen Agiriaren 4. Klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira Aste Nagusiko kontzertuen agertoki nagusia (gaur egun Sagues-eko agertokia) eta Donostiako Jazzaldiko hondartzako agertokia. Horrela, adjudikazioduna ez den beste enpresa batzuekin kontrata daitezke (bereizita lizitatuko dira).

9/2017 Legeak [azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL)] 130. Artikuluan ezarritako betebeharra betez, lizitatzaileei informazioa eman zaie legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektibo batek adjudikaziodunari lan harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzekotan, subrogazioaren eraginpeko lan kontratuen baldintzei buruz.

Informazio hori Administrazio Klausula Partikularren **VIII. Eranskinean** aurki daiteke eta Kontratazio Organoari helarazi dio une honetan kontratuaren objektua osatzen duten zerbitzuak ematen dituen kontratistak.

Lote bakoitzaren kontratuaren CPV kodeak honako hauek dira:

1. SORTA:

- 39150000-8 - Altzariak eta askotariko ekipamendua (Nagusia)
- 79952000-2 - Ekitaldi-zerbitzuak
- 45223800-4 - Egitura aurrefabrikatuak muntatzea eta instalatzea
- 45223100-7 Metalezko egiturak muntatzea.

2. SORTA:

- 39150000-8 - Altzariak eta askotariko ekipamendua (Nagusia)
- 79952000-2 - Ekitaldi-zerbitzuak
- 34928200-0- Hesiak

3. SORTA:

- 39150000-8 - Altzariak eta askotariko ekipamendua (Nagusia)
- 79952000-2 - Ekitaldi-zerbitzuak
- 45223800-4 - Egitura aurrefabrikatuak muntatzea eta instalatzea

IFK-CIF Q2000541I

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOAK

2.1. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK

DONOSTIA KULTURA EEP eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateak dira erakunde kontratugileak.

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA) bere kontura eta beste bi botere esleitzaileen kontura administratuko du prozedura, hau da, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA eta SAN TELMO MUSEOA SAren kontura.

Hori horrela izanik:

- Hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzarekin egiteko kontratuak prestatu, eskaintzarik onena hautatu eta kontratuak esleitzeko esku-hartzeak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK burutuko ditu esklusiboki.

- Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak Orri honetako 19. Klausulan eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, eta esleipena argitaratu eta lizitatzaileei jakinarazi ondoren, eduki bereko kontratu bana sinatuko dira hiru erakunde horiekin, aipatutako klausulan adierazitako epean.

IFK-CIF Q2000541I

Hori horrela izanik, lizitazio honen xede diren zerbitzuak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SAk edo SAN TELMO MUSEOA, SAk eskatu eta kontrata ditzakete, Zerbitzuak eskatutako erakundeari fakturatuko zaizkio eta hark ordainduko ditu.

Bakoitzaren kontratuak sinatzen diren unetik aurrera, eskubide eta betebeharren araubidea, kontratuak egikaritu eta eteteko faseei dagokien guztian, hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzari indibidualki dagokiola ulertuko da.

Horrenbestez, Plegu hauetan DONOSTIA KULTURA erakundeari egiten zaion aipamen orokor oro, hurrengoari egina dela ulertu behar da:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAri, hiru erakunde kontratatzaile bakoitzarekin egiteko kontratuak prestatzeari, eskaintzarik onena hautatzeari eta kontratuak esleitzeari dagozkion esku-hartzeekin lotuta.

- Era berean, hiru erakundeetako edozeini, hots, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SAri, dagozkien kontratuak formalizatu eta sinatzearekin eta horiek egikaritu eta eteteko faseen inguruko guztiarekin lotuta.

2.2. KONTRATAZIO ORGANOAK

Kontratazio Organoa DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN presidentea izango da kontratuen prestaketa prozeduraren, eskaintza onenaren hautaketaren eta kontratuen adjudikazioaren ondoreetarako.

Kontratu bakoitzaren gauzatze, izenpetze eta ondorengo egikaritze eta azkentze ondoreetarako, Kontratazio Organoa izango da hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzari dagokiona: DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN presidentea, VICTORIA

EUGENIA ANTZOKIA, S.A. sozietatearen kudeatzailea eta SAN TELMO MUSEOA, S.A. sozietatearen kudeatzailea.

SPKLaren Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, adierazten da DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO Ekonomia eta Finantza Saila dela kontabilitate arloko unitate eskuduna.

3. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleituko da, lizitatzaileekin dagokion negoziazioa egin ondoren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 168 a) 1. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, ez baitzen eskaintzarik jaso aurretik deitutako prozedura irekian. Artikulu horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL). Ondorio horietarako, aipatu da kontratu haren hasierako baldintzak ez direla aldatu.

Negoziazioa plegu honen 14. klausulan adierazitako alderdi ekonomiko eta teknikoei buruzkoa izango da.

Lizitatzaileek aurkezten duten azken eskaintza agiri honen 16. klausulan ezarritako eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera baloratuko da.

IFK-CIF Q2000541I

4. ALDAERAK

Ez dira onartuko.

5. KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA

Kontratu izaera izango dute, esleipenaren ondoren formalizatuko den kontratuaz gain, honako agiri hauek:

- Klausula Administratibo Berezien Orria.
- Preskripzio Teknikoen Agiria.
- Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

Adjudikaziodunak agiri horiek sinatu beharko ditu, haien adostasuna frogatzeko, kontratua formalizatzen den unean.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da, formalizatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Kontratua urtero luzatu ahal izango da, gehienez 2 urte gehiagoz, entitate kontratatzaile bakoitzak jakinarazpen frogagarria eginez gero, eta nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, betiere aurreabisua kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago egiten bada gutxienez. Entitate kontratatzaile bakoitzak, bere aldetik eta gainerako entitate kontratatzaileekiko modu independentean, dagokion kontratua luzatzen duen ala ez erabaki

ahal izango du.

Kontratistak kontratua eta hura arautzen duten Agiriak bete beharko ditu indarraldian zehar, luzapena(k) barne.

Erakunde kontratatzaile bakoitzak enkargu bakoitzean adierazten duena izango da entregatzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko lekua.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratuaren hasierako iraunaldirako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **1.246.993,67** eurokoa da (BEZarekin), horrela zatituta :

- 1.030.573,28 euro (BEZik gabe).
- 216.420,39 euro (BEZa).

Zehazki, lote bakoitzaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, hasierako indarraldirako, honako hau da:

1. Lotea: 581.502,72 euro (BEZa barne).

1. Loteari dagokionez, zehazki, kontratuaren hasierako iraupenaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, entitate kontratatzaile bakoitzari dagokiona, honako hau da:

• DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA: 482.182,06 euro (BEZa barne).
398.497,57 euro (BEZik gabe).
83.684,49 (BEZa).

• VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA: 95.947,95 euro (BEZa barne).
79.295,83 euro (BEZik gabe).
16.652,12 euro (BEZa).

• SAN TELMO MUSEOA SA: 3.372,72 euro (BEZa barne).
2.787,37 euro (BEZik gabe).
585,35 euro (BEZa).

- **2. Lotea: 383.617,26 euro (BEZa barne).**

2. Loteari dagokionez, zehazki, kontratuaren hasierako iraupenaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, entitate kontratatzaile bakoitzari dagokiona, honako hau da:

• DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA: 318.095,43 euro (BEZa barne).
262.888,79 euro (BEZik gabe).
55.206,65 euro (BEZa).

• VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA: 63.296,85 euro (BEZa barne).
52.311,44 euro (BEZik gabe).
10.985,40 euro (BEZa).

• SAN TELMO MUSEOA SA: 2.224,98 euro (BEZa barne).
1.838,83 euro (BEZik gabe).

IFK-CIF Q2000541I

386,15 euro (BEZa).

- **3. lotea: 281.873,69 euro (BEZa barne).**

  3. loteari dagokionez, zehazki, kontratuaren hasierako iraupenaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, entitate kontratatzaile bakoitzari dagokiona, honako hau da:

  • DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA: 233.729,66 euro (BEZa barne).
  193.165,01 euro (BEZik gabe).
  40.564,65 euro (BEZa).

  • VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA: 46.509,16 euro (BEZa barne).
  38.437,32 euro (BEZik gabe).
  8.071,84 euro (BEZa).

  • SAN TELMO MUSEOA SA: 1.634,87 euro (BEZa barne).
  1.351,13 euro (BEZik gabe).
  283,74 euro (BEZa).

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontu hori zehazteko kontuan hartu dira zuzeneko eta zeharkako kostu hauek eta bestelako gastu posibleak:

- Zuzeneko kostuak: %83
- Zeharkako kostuak: %7
- Marjina: %10
- BEZa:%21

IFK-CIF Q2000541I

Kontratu honetan kontratistak bere gain hartzen duenez kontratua ondoz ondo eta Prezio Unitarioka exekutatzeko betebeharra, kontratua egiteko unean eragiketa-kopurua zehatz-mehatz zehaztu gabe – kopuru hori erakunde kontratatzailearen beharren araberakoa izango da –, SPKLren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, gehieneko aurrekontua **2.061.146,56 euro**koa izango da (BEZik gabe), kontratuaren iraupen osorako, lote bakoitzeko honela banakatuta:

- **1. lotea: 961.161,52 euro** (BEZik gabe).
- **2. lotea: 634.078,12 euro** (BEZik gabe).
- **3. lotea: 465.906,92 euro** (BEZik gabe).

Gehieneko aurrekontu horrek ez du entitate kontratatzailea behartzen bere guztizkoa ordaintzera; aitzitik, benetan eskatutako unitateak bakarrik ordainduko ditu, unitate-prezioan eta benetan emandako eragiketa kopuruaren arabera.

7.2. LIZITATZAILEEN PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Enpresa lizitatzaileek honako prezio hauek sartu beharko dituzte beren proposamen ekonomikoan:

a) Gehieneko unitate-prezioak, **alokairu-erregimenean, agertokiak, hesiak, harmailak eta askotariko materiala hornitzeko, jartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko**, aurkezten den lotearen arabera.

Lizitatzaileek, beren proposamen ekonomikoan, aurkeztu diren loteari dagokion **Orri honetako IX. Eranskinean** (Excel) adierazitako elementuak alokairu, kokatze, muntatze eta desmuntatze erregimenean hornitzeagatiko unitate-prezioak adierazi beharko dituzte, baina inola ere ez dira izango bertan finkatutako lizitazioko gehieneko unitate-prezioak baino handiagoak.

Horretarako, adierazten da eskainitako prezioa 1-5 eguneko eperako izango dela, eta, adierazten diren erreferentzietan, 6-12 egunekoa. Egunen zenbaketa materiala erabiltzen den lehen egunean hasiko da, alokatutako elementuen muntaketa- eta desmuntaketa-egunak kontuan hartu gabe.

Era berean, alokairu-prezioa bereizi beharko da honako kasu hauetan: (i) muntaia eta desmuntaketa eguneko ordutegian egin bada (06:00etatik 22:00etara); (ii) muntaketa edo desmuntaketa gaueko ordutegian egin bada (22:01etik 5: 59ra); eta (iii) muntaketa eta desmuntaketa gaueko ordutegian egin bada (22:01etik 5: 59ra).

b) Gehieneko prezio unitarioa Klausula Teknikoen Orriko 3. Klausulan deskribatutako **laguntza logistikoko zerbitzuengatik**: 25,5 euro orduko (BEZik gabe) pertsona bakoitzeko, aurkezten diren lote bakoitzerako.

c) Instalazioen Segurtasun eta Muntaia Ziurtagiria emateagatiko unitate-prezio maximoak, 1. eta 3. loteetan:

- 25 m2-rainoko instalazioen ziurtagiriak: 3 euro m2-ko (BEZik gabe).
- 26 m2 eta 100 m2 arteko instalazioen ziurtagiriak: 2,5 euro m2-ko (BEZik gabe).

- 101 m2-tik 150 m2-ra bitarteko instalazioen ziurtagiriak: 2,2 euro m2-ko (BEZik gabe).
- 151 m2 baino gehiagoko instalazioen ziurtagiriak: 350 euro (BEZik gabe).

Halaber, enpresa lizitatzaileek gehieneko errekargu hauek hobetu ahal izango dituzte beren proposamen ekonomikoan:

Errekarguak:

- a) idatz-zatian adierazitako prezioen gaineko % 25 ordainduko da gehienez, hornigaiak sarbide zaileko lekuetan muntatu edo kokatu behar direnean (Prezkripzio Teknikoen Orriko 5. klausulan zehaztuta daude).

- b) idatz-zatian adierazitako prezioari honako hauek aplikatuko zaizkio:
  - Orduko % 10eko gehieneko errekargua, Aste Nagusian egindako lanetarako
  - Orduko % 25eko gehieneko errekargua gaueko ordutegian (22:01etik 5: 59ra), igandeetan edo jaiegunetan egindako lanetarako (bi egoera gertatzen diren kasuetan errekargu bakarra aplikatuko da).

  Aurreko gidoietan deskribatutako bi kasuak gertatzen badira, b) letran adierazitako prezioari bi errekarguak aplikatuko zaizkio, modu metagarrian.

- "Premiazkotzat" jotzen diren zerbitzuek (Preskripzio Teknikoen Orriko 4.b) Klausulan definituak) % 30eko kostu gehigarria izango dute gehienez.

- 72 ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin baliogabetutako zerbitzuetan (formatu handiko eta ertaineko ekitaldietan) eta 24 ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin (formatu txikiko ekitaldietan), erakunde kontratatzaileak gehienez konprometitutako

IFK-CIF Q2000541I

materialen % 30 ordaindu beharko dio enpresa kontratistari. Laguntza logistikorako langilea bada, pertsona eta egun bakoitzeko gutxieneko kopurua (3 ordu) ordainduko da.

Gainera, enpresa lizitatzaileek gutxieneko deskontu hauek hobetu ahal izango dituzte beren proposamen ekonomikoan, aurkezten duten lotearen arabera:

2. SORTA:

Entitate kontratatzaileak eskatzen badu burutzeko 72 orduko epean gauzatzeko bost kotatu edo (ondorio horietarako, aldi bereko kotatuak deituko dira), gutxieneko deskontu-ehuneko hauek aplikatuko zaizkio dagokion guztizko prezioari:

- 5-15 aldi bereko kotatuak: gutxienez % 20ko deskontua
- 16 eta 30 aldi bereko kotatuak: gutxienez % 25eko deskontua.
- 31 eta 45 aldi bereko kotatuak: gutxienez % 30eko deskontua.

1. eta 3. LOTEAK:

Jai-espazio berean (hau da, kultura-jarduera bat egiten den plaza edo kalea, eta ez jai-programa bat) Instalazioen Segurtasun- eta Muntaketa-Ziurtagiri bi edo gehiago eman behar badira (adibidez, bi karpa), gutxieneko deskontu-ehuneko hauek aplikatuko zaizkio guztizko prezioari:

- Bi ziurtagiri: gutxienez % 20ko deskontua
- Hiru ziurtagiri: gutxienez % 25eko deskontua
- Hiru ziurtagiri baino gehiago: gutxienez % 30eko deskontua

IFK-CIF Q2000541I

Klausula honetan adierazitako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gehieneko aurrekontu zenbatetsia da unitateko prezioetan, eta ez da zenbateko horretako negozioa ziurtatzen, premien araberakoa baizik, SPKLren 33. XGan ezarritakoaren arabera.

Aipatu kontratuaren prezioak kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak hartzen ditu barne; ondokoak, besteren artean, adierazpen huts gisa eta inolako mugarik ezarri gabe:

- Kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, zuzenak zein zeharkakoak, betiere Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu ez diren kontzeptuengatiko fakturaziorik.

- Kontratuaren exekuzioak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta aipatu exekuziorako baliatutako langileei lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jai-egunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), bai eta zerga (BEZ kanpo), aseguru, lizentzia, garraio-gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

- Hornigaiak entregatzeko, lekualdatzeko eta entregatzeko lekura garraiatzeko gastuak.

- Kontratuaren exekuzioan kontratistak erabili beharko dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, instrumentu, informatika-ekipo eta gailu guztiak.

- Erakunde kontratugileak agintzen dituen lan- edo informazio-bilera guztietara bertaratzea, kontratuaren garapen egokia eta betetzea ahalbidetzeko helburuarekin.

7.3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **2.267.261,32 eurokoa da** (BEZik gabe), SPKLren 101. artikuluan aurreikusitako moduan eta ondorioetarako kalkulatuta.

Lote bakoitzari dagokion kontratuaren balio zenbatetsia honako hau da:

- **1. Lotea: 1.057.277,67** euro (BEZik gabe).

  1. Loteari dagokionez, entitate kontratatzaile bakoitzari dagokion balio zenbatetsia honako hau da:

  - DONOSTIA KULTURA: 876.694,65 euro (BEZik gabe).
  - VICTORIA EUGENIA: 174.450,82 euro (BEZik gabe).
  - SAN TELMO: 6.132,21 euro (BEZik gabe).

- **2. Lotea: 697.485,93 euro** (BEZik gabe).

  2. Loteari dagokionez, entitate kontratatzaile bakoitzari dagokion balio zenbatetsia honako hau da:

  - DONOSTIA KULTURA: 578.355,33 euro (BEZik gabe).
  - VICTORIA EUGENIA: 115.085,18 euro (BEZik gabe).
  - SAN TELMO: 4.045,42 euro (BEZik gabe).

- **3. lotea: 512.497,61 euro** (BEZik gabe).

  3. loteari dagokionez, entitate kontratatzaile bakoitzari dagokion balio zenbatetsia honako hau da:

  - DONOSTIA KULTURA: 424.963,02 euro (BEZik gabe).
  - VICTORIA EUGENIA: 84.562,11 euro (BEZik gabe).
  - SAN TELMO: 2.972,49 euro (BEZik gabe).

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da, hau da, aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen balio erreala kontuan hartuta, hasierako kontratuen ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kopuru-aldaketen arabera doituta, eta kontratuak iraun lezakeen aldi osoan zenbatuta, balizko luzapenak barne.

Informazioa emateko eta lotesleak ez izateko, Preskripzio Teknikoen Orriko **III. Eranskinean** hornitu/gauzatu beharreko elementuen/erreferentzien urteko zenbatespena sartu da. Zenbatespen hori ezin da inola ere lotesletzat jo entitate kontratatzaile bakoitzarentzat; orientagarria da eta ondorioz elementu/erreferentzia kopuruaren zenbatespen hori ez badator bat kontratua egikaritzean agerian jarritako errealitatearekin, kontratistak ez du erreklamazioa egiteko eskubiderik izango.

IFK-CIF Q2000541I

Horrez gain, Orri honen 32. klausulan adierazitakoarekin bat etorriz, kontratuaren prezioaren % 10ari dagokion zenbatekoa kontuan hartu da kontratua gauzatu bitartean benetan hornitutako edo egikaritutako unitateen kopurua aurreikusitakoen gainetik soilik aldatzen den kasurako.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Prezioa hilero ordainduko da, esleipendunak dagokion faktura aurkeztu ondoren. Faktura horretan, lizitazio-espedientearen zenbakia jaso beharko da.

Dagokion hilean benetan hornitutako elementuen kopurua eta emandako zerbitzuak elementu eta zerbitzu bakoitzeko eskainitako unitate-prezioari aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ordainduko da hilero. Nolanahi ere, operatibak eta errekerimendu-sistemak Preskripzio Teknikoen Orriko 4. klausulan ezarritakoa bete beharko dute.

Ateratzen den zenbatekoari dagokion BEZa aplikatuko zaio.

Kontratistak hurrengo hilabeteko lehenengo 10 egun naturalen barruan egin beharko du hileko faktura.

Entitate kontratatzaileak 30 egun naturaleko epean ordainduko du prezioa, hornidurari eta zerbitzuei dagokien hilabetea amaitzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta aurretik aipatutako epean faktura(k) egin bad(ir)a eta dagokion oniritzia bad(ut)e.

IFK-CIF Q2000541I

9. PREZIOAREN BERRIKUSKETA

Ez da halakorik.

10. PUBLIZITATEA

Entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profilean honako hauek argitaratuko dira:

- Kontratuaren esleipenaren iragarkia.

- Kontratua formalizatzeko iragarkia.

- SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profil horretarako sarbidea honako web orri honen bitartez egingo da: www.contratacion.euskadi.eus

Halaber, kontratua formalizatzeko iragarkia Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

Gainera, Kontratazio Organoak, klausula-orri honen 32. klausularen arabera, kontratuaren aldaketa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko du, SPKLren 207.3 artikuluan adierazitako moduan.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Lote bakoitzerako eskaintzarik onena aurkeztu duen eskatzaileak behin betiko berme desberdina eratu beharko du entitate kontratatzaile bakoitzaren alde. Berme horren zenbatekoa erakunde kontratatzaile bakoitzari dagokion sortaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta.

Berme horiek eraginkorrak izan daitezen, dagokion entitate kontratatzaileak eskatu beharko ditu.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko berme horiek eratu dituela egiaztatu beharko du 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Behin betiko berme horiek SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo diete.

Bermeak SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetako batean eratu ahal izango dira.

Abal moduan eratuz gero, Agiri honi **I. Eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren araberakoa izango da.

Bermeak eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatuko da.

Bermeen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zehapenak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, kontratistak bermeak berrezarri edo handitu beharko ditu –dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost eguneko epea izango du. Hala egin ezean, dagokion kontratua suntsiarazteko arrazoi nahikoa izango da.

Kontraturen baten aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak dagokion bermea berregokitu egin beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost eguneko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketa erabakia jakinarazten den datatik aurrera.

Bermeen itzulketa eta kitapena SPKLren 111. artikuluak ezartzen dituen baldintzetan egingo da.

Zehazki, berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala burutzen den arte edo kontratistaren ardura ez den zioren batengatik kontratua bertan behera uzten den arte ez da dagokien bermea itzuliko edo kitatuko.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta behar adina kaudimena frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko dute.

IFK-CIF Q2000541I

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduera esparrukoak direnean, haien Estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, erakunde kontratugilearekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Ekonomia Espazioaren inguruko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuko zerbitzua betetzeko gaituta badaude. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 67. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita dauden Estatuko legeriak kasuan-kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Nazioarteko akordioen ondorioz Espainiak dituen betebeharrei kalte egin gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Ekonomia Espazioaren inguruko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek honakoa justifikatu beharko dute, txosten baten bidez: atzerriko enpresaren jatorriko Estatuak, bere aldetik, enpresa espainiarrek SPKLren 3. artikuluan zehaztutakoen pareko erakunde, elkarte edo sektore publikoko erakundeekin eta Administrazioarekin, modu bertsuan, maila berean, kontratuak egiteko aukera edukitzea onartzen duela. Txosten hori dagokion Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egin beharko du eta beste dokumentazio guztiarekin batera aurkeztu beharko da.

IFK-CIF Q2000541I

Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren sinatzaile diren Estatuetako enpresei dagokien elkarrekikotasunaren inguruko txostena ez da aintzatetsiko.

Erakunde kontratugilearekin kontratuak egin ditzakete, xede horrekin aldi baterako sortzen diren enpresari-elkarteek, eta ez dute eskritura publikorik formalizatu beharko, harik eta kontratuaren esleipena lortu arte. Edozein kasutan, SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Enpresa lizitatzaileek kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesional hau dutela egiaztatu beharko dute:

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena: kontratuaren esparruko urteko negozio-bolumena. Eskura dauden azken hiru ekitaldietako ekitaldirik onenari dagokionez (urteko kontuak onartzeko betebeharra mugaeguneratuta dutenak), lizitatzailearen jarduerak eratzeko edo hasteko eta eskaintzak aurkezteko daten arabera, gutxienez, dagokion lotearen urteko balio zenbatetsia halako bat eta erdi izan beharko da.

- Gaitasun teknikoa edo profesionala: Azken hiru urteetan, hornidura-kontratuak gauzatu izana, alokairu-erregimenean, agertokiak, hesiak, harmailak eta askotariko materiala kokatu, muntatu eta desmuntatzeko, baldin eta kontratu horien urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, dagokion lotearen kontratuaren urteko batez besteko urtekoaren % 70ekoa edo handiagoa bada.

Horrez gain, enpresa lizitatzaileek lote bakoitzerako gutxieneko giza baliabide eta baliabide material hauek atxiki beharko dituzte kontratua gauzatzeko:

- Gutxienez 4 urteko esperientzia duen koordinatzaile bat hornidura-kontratuak koordinatzen eta gainbegiratzen, alokairu-erregimenean, agertokiak, hesiak,

harmailak eta askotariko materiala jartzen, muntatzen eta desmuntatzen, bai eta laguntza logistikoko zerbitzuetan ere.

- Koordinatzailea bera izan daiteke lote guztietan

- Muntaketen arduradun bat, gutxienez 6 urteko esperientzia duena eszenatokien, hesien, harmailen eta askotariko materialen muntaketak gainbegiratzen, bai eta laguntza logistikoko zerbitzuetan ere.

- Donostiako udalerrian edo hiritik gehienez ere 50 km-ra dagoen biltegi bat.

- Transpaleta mekanikoa eta eskuzkoa

- Eskorga mekanikoa eta eskuzkoa.

- Urteko 365 egunetan erabilgarri dagoen telefono mugikorra, gutxienez 08:00etatik 22:00etara, astelehenetik igandera, jaiegunak barne. Muntaketak egiten dituzten jarduerak egiten diren bitartean, 24 orduko prestasuna izango dute (muntaketa-egunak eta desmuntaketa-jardueren garapena barne).

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.1 f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, betebehar hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzailearen borondatez.

Enpresa kontratistak kontratua gauzatzera atxikitako pertsonaren bat bere kabuz aldatzen badu, dela langile propioa, dela azpikontratatua, entitate kontratatzaileak eskatu ahal izango du konprometitutako pertsonari berehala eragiteko, edo, bestela, enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezinezkoa bada, prestakuntza eta esperientzia bereko giza baliabideekin berehala ordezteko. Pertsona horrek entitate kontratatzailearen berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo atxikiko diren bitartekoen inguruko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileek beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili ahal dituzte, bien arteko loturen izaera juridikoa dena dela. Kontratua exekutatzen den bitartean kaudimen eta/edo bitarteko horiek bere esku izango dituela frogatu beharko du halere eta erabilitako erakundeak ezingo du kontratatzeko debekurik izan.

Beste erakunde baten kaudimen eta/edo bitarteez baliatuko diren lizitatzaileek egoera hori 1. Gutun-azalean sartu beharreko adierazpen erantzulean (KEDBren II. Zatiko C atalean, zehazki) adierazi beharko dute.

Horrez gain, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili nahi baditu, beharrezko bitartekoak bere esku izango dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, aipatu erakundeen idatzizko konpromisoa (II. Eranskinean jasotako ereduari jarraiki egina) aurkeztu beharko du.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak eskaturiko kaudimena eta/edo atxikipen-konpromisoa egiaztatzeko erabili dituen erakundeek Notario baten aurrean hartuko dute konpromiso hori; ondokoa jaso beharko dute: lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena dutela, dagokion ziurtagiria aurkeztuz, 19. Klausulan adierazten den moduan; eta aipatutako lizitatzailea esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztaezina duela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko

IFK-CIF Q2000541I

du). Idatzi hori aurkeztuz gero, erakunde kontratugileak konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaile hori esleipendun gertatzen bada.

Lote bakoitzeko eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak konpromiso hori aurkeztu beharko du. Horretarako, 10 baliodun eguneko epea izango du, aurrekoa egiteko eskaria Kontratazio-organoaren eskutik jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita.

Klausula honek jasotzen dituen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debeku ezari buruzko baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko ditu lizitatzaileak, bai eta kontratua sinatzeko unean ere.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- **Aurkezteko modua:** eskaintzak bitarteko elektronikoak baliatuta aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoen aplikazioan, helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus.

  Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen tekniko ak, datak zifratzea eta baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren web orrian daude, helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus

- **Komunikazio eta jakinarazpenetarako bitartekoak**: SPKLaren Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio prozedura honetan egingo diren komunikazioak eta jakinarazpenak agerraldi elektroniko bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoen aplikazioaren bitartez. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, lizitatzaileak bidalketa abisu bat jasoko du ondore hauetarako adierazi duen helbide elektronikoan.

- **Aurkezteko epea:** Hogeita bost egun natural, idatzizko gonbidapena bidaltzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

  Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

13.2. FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Plegu honi eta Baldintza Teknikoen Orriari egokitu beharko zaizkie, eta haiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztien edukia, salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Fitxategi elektronikoa izatearen kalterik gabe, Gutunazal Bakarra izena izango du.

Kartazalak ondoren adierazten diren dokumentuak izango ditu eta barruan sartutako dokume ntuen zerrenda zenbakitua izango du

- **Gutun-azal bakarra**

Lizitatzaileek ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

IFK-CIF Q2000541I

1.Aurretiazko eskakizunak bete izanari buruzko dokumentazioa

Lote baterako baino gehiagorako eskaintzak aurkezten dituzten lizitatzaileek behin bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte honako agiri hauek

a) Adierazpen erantzulea. Agiri **honen III. Eranskinean** jasotako Kontratatzeko Europar Dokumentu Bakarraren inprimakia (aurrerantzean, KEDB) jarraituko du eta jarraian zehaztutako moduan beteko da:

- 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen 2016/7 Exekuzio Erregelamenduak (EB), Kontratatzeko Europar Dokumentu Bakarraren inprimaki normalizatua ezarri duenak, jasotzen dituen Jarraibideei jarraiki beteko da KEDBa.

- KEDBren "IV. zatia: Aukeraketa-irizpideak" atalarekin lotuta, lizitatzaileek A atala —"Aukeraketa-irizpide guztiei buruzko ohar globala"— baino ez dute bete beharko.

- Lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimen eta/edo bitartekoetan oinarritzen bada Agiri honen 12. Klausulak dioenari jarraiki, erakunde horietako bakoitzak adierazpen erantzule bana aurkeztu beharko du. Adierazpen horrek KEDBko II. zatiko A ataleko ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B Ataleko ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") eta III. Zatiko informazioa jasoko du.

- Zenbait enpresaburu aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartzen direnean, parte hartzen duen enpresa bakoitzak bere adierazpen erantzulea aurkeztuko du. Honek, KEDBko II. zatitik V. zatira arte eskatzen den informazioa jasoko du.

b) Kontratuaren exekuzioari agiri honen 12. klausulan eskatutako gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa, Plegu honi **IV.eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera.

c) Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartea eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

d) 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, adierazpen erantzulea, langileen %2ak gutxienez desgaitasunen bat duela adieraziz, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, bere 42. artikuluan dioenarekin bat. Adierazpen ereduak **V. Eranskin**ean jasotako eredua jarraituko du.

e) 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan, enpresaren adierazpen erantzulea, 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun

IFK-CIF Q2000541I

eragingarrirakoak, bere 45. artikuluan arautzen duen berdintasun-plana ezarria duela adieraziz. Adierazpenak **V. Eranskin**ean jasotako eredua jarraituko du.

f) Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

OHARRA:

Erakunde kontratugileak dokumentu egiaztatzaile guztiak, edo beren zati bat, aurkeztea eska diezaieke lizitatzaileei, 1. puntuan jasotako adierazpenaren indarraren edo fidagarritasunaren inguruko zalantzak badituzte edo prozeduraren garapen egokirako beharrezkoa bada.

Aurrekoari kalte egin gabe, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean sartua dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide baten datu-base nazional batean sartua dagoenean (enpresaren espediente birtuala, dokumentuak gordetzeko sistema elektroniko bat edo aurre-kalifikaziorako sistema bat) eta aipatu organoek datu horiek doan eskuratzeko aukera dutenean, ez da beharrezkoa izango aipatuetan jasotako datuen egiaztagiririk aurkeztea.

IFK-CIF Q2000541I

2. Balio judizio bidez kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa

Lizitatzaileek, lizitatzen duten lote bakoitzerako, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Memoria teknikoa, honako bloke hauek osatua:

a) Hornitu beharreko elementuak:

Enpresa lizitatzaileak hornitzeko konpromisoa hartu duen elementuen deskribapena egingo da, erreferentzia-zenbakiaren arabera zerrendatuta eta Preskripzio Teknikoen Orrian jasotako legenda berarekin. (Adib. Erref. Agertokietarako plataforma 1, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin).

Elementu bakoitza deskribatu beharko da, eta, gutxienez, Preskripzio Teknikoen Orrian elementu bakoitzari buruz egiten den deskribapenean jasotako alderdiak eta horiek hobeto katalogatzeko interesgarriak izan daitezkeen alderdiak aipatu beharko dira.

Nolanahi ere, aurrekoaz gain, materialaren marka eta fabrikazio-erreferentzia eta fabrikazio-data adierazi beharko dira.

Hornitu beharreko elementu bakoitzeko fitxa bat sartu beharko da, gehienez ere (hau da, fitxa bat erreferentzia bakoitzeko).

Baldintza-orrietan ekipoen eta/edo materialen markei egiten zaien erreferentzia oro aipatutako markari eta haren baliokideari egindakotzat hartuko da.

b) Lan-metodologia

Materialak alokatzeko, jartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko eta laguntza

logistikoko zerbitzuak emateko eraginkortasun-plana zehaztuko da.

Bereziki, edozein motatako ezustekoen aurrean erantzuteko gaitasuna zehaztuko da, enpresak horretarako dituen baliabideak eta neurriak adierazita, bai eta erakunde kontratatzaileak izendatutako kontratuaren arduradunarekin jarduteko moduaren deskribapena ere (bilerak, koordinazioa eta erabilgarritasuna).

c) Baliabide materialak

Lizitatzaileek enpresa kontratistak kontratua gauzatzeko erabiliko dituen gutxieneko bitartekoen eta bitarteko gehigarrien (ibilgailuak eta makinak) deskribapena egingo dute, bai eta horietako bakoitzak kontratua gauzatzean izango duen erabilera ere.

d) Ingurumena

Erabilitako materialen eta prozesuen ingurumen-inpaktua murrizteko enpresak hartutako neurriak deskribatuko dira.

e) Antolamendu-egitura.

Enpresa lizitatzaileek kontratua gauzatzeari atxikitako antolaketa-egituraren deskribapena egingo dute (muntaketen arduraduna ez da hartuko antolaketa-egituraren zatitzat).

Lizitazio honen abiapuntua da atxikitako langileen kalitateak nabarmen eragin diezaiokeela kontratua gauzatzeari.

Testuinguru horretan, lizitatzaileek antolakuntza-egitura zehaztu beharko dute, baita langile horien kualifikazioa eta esperientzia ere.

Baliabideen atxikipen hori hurrengo puntuan aurreikusitako moduan baloratuko da.

IFK-CIF Q2000541I

Gutun-azal honetan aurkeztu beharreko dokumentazioan, ezingo da gainditu **lote bakoitzeko 40 orrialdeko gehieneko muga**, eta ezarritako muga gainditzen duten orrialdeak ez dira baloratuko. Bestalde, muga tipografikoak eta formatukoak honako hauek dira: DIN A4, Arial letra 11 tamaina edo handiagoa, lerroartea 1,5 edo handiagoa, marjinak 3 cm-koak edo handiagoak, lerrokada-jauzi sinplea edo handiagoa.

Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetze aldera, ohartarazten da kontratua indarrean dauden eta lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzearen mende dagoela.

Testuinguru horretan, memoria honetan aurreikusitako dokumentazioan, lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langile propio edo azpikontratatuei, esleipendun izanez gero, aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adieraziko dute.

Eskaintzaileak arreta berezia jarri beharko du memoria honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzean, edukiari buruz emandako jarraibideei jarraituz.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi egingo dira eta prozeduratik kanpo utziko dira.

DONOSTIA KULTURAk beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko eskubidea, edo lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzekoa.

Kontratistak alde bakarrez aldatzen baditu kontratua egikaritzeko atxikita dauden pertsonak, bertako langileak edo azpikontratatuak izan, entitate kontratatzaileak eskatu ahalko du konprometitutako pertsonei berehala eragiteko, edo, bestela, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezinezkoa bada, berehala ordezteko prestakuntza eta esperientzia bereko giza baliabideekin. Pertsona horiek entitate kontratatzailearen berariazko baimena beharko dute.

3. Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa

Lizitatzaileek formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamen bat aurkeztu beharko dute, berariazko klausula administratiboen agiriarekin batera doan **VI. Eranskin**eko ereduaren araberakoa, lizitatzen duten lote bakoitzerako bereizita, eta honako kontzeptu hauek jasoko ditu:

- **Proposamen ekonomikoa** (eskainitako prezio unitario bakoitza gehienez bi hamartarrekin adieraziko da).

- **Berdintasuna**
  Kontratua gauzatzera atxikitako langileei, erakunde kontratatzailearentzat kostu gehigarririk gabe, gutxienez 2 orduko prestakuntza-ikastaro bat emateko konpromisoa, kontratua gauzatzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.

Erakunde kontratugileak, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, Gutun Azal Bakarrean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, kontratistak berari egozteko moduko arrazoien ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

14. NEGOZIAZIO FASEA

Kontratazio-mahaiak aldez aurretik kalifikatuko du gutun-azal bakarrean jasotako aldez aurreko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, garaiz eta behar bezala aurkeztuta. Aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak daudela ikusiz gero, entitate kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio dagokion lizitatzaileari zuzentzeko.

Aurkeztutako eskaintzan antzemandako akatsak zuzendu ondoren, eta eskaintzailearen nortasuna egiaztatu ondoren, negoziazio-fasea hasiko da, honako alderdi ekonomiko eta tekniko hauei buruzko:

- Lan-metodologia
- Baliabide materialak
- Ingurumena
- Antolamendu-egitura
- Prezioa

IFK-CIF Q2000541I

- Berdintasuna

Nolanahi ere, ez dira negoziatuko kontratuaren xede den prestazioaren gutxieneko baldintzak.

Espedientean erasota utzi beharko dira egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta negoziazioan lortutako abantailak.

Negoziazioan zehar, Kontratazio Mahaiak eta Kontratazio Organoak lizitatzaile guztiek tratu bera jasotzen dutela zainduko dute. Bereziki, ez dute informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta lizitatzaile batzuei besteen gaineko abantaila emanez.

15. NEGOZIAZIOAK AMAITZEA ETA BEHIN BETIKO ESKAINTZAK AURKEZTEA

Kontratazio-organoak negoziazioak amaitzea erabakitzen duenean, lizitatzaile guztiei jakinaraziko die, eta epe komun bat ezarriko du eskaintza berriak edo berrikusitakoak aurkezteko bitarteko elektronikoak erabiliz, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez.

Behin betiko eskaintzak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaiak egiaztatuko du eskaintza horiek bat datozela gutxieneko baldintzekin eta Agiri honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta hurrengo 16. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideen arabera baloratuko ditu.

IFK-CIF Q2000541I

16. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Adjudikazio irizpideak hauek izango dira lote bakoitzerako, adierazitako haztapenaren arabera:

1. <u>Balio judizio bidez kuantifikatzen diren irizpideak:</u> 50 puntu gehienez.

Proposamen teknikoak baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- Lan-metodologia. Gehienez 15 puntu.

  Materialak alokatzeko, jartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko, bai eta laguntza logistikoko zerbitzuak emateko ere, hornikuntza-planaren egokitasuna eta bideragarritasuna baloratuko dira. Era berean, kontratua gauzatzean sor daitezkeen arazo eta gorabeheren aurrean lizitatzaileak erantzuteko duen gaitasuna baloratuko da, baita kontratuaren arduradunarekin jarduteko moduaren egokitasuna eta bideragarritasuna ere (bilerak, koordinazioa eta prestasuna).

- Baliabide materialak. Gehienez 15 puntu.

  Orri honetako 12. klausulan eskatzen diren gutxieneko baliabide materialen ezaugarri gehigarrien egokitasuna baloratuko da.

  Era berean, kontratua gauzatzeari atxikitako baliabide material gehigarrien egokitasuna baloratuko da.

- Ingurumena. Gehienez 5 puntu.

Erabilitako materialen eta prozesuen ingurumen-inpaktua murrizteko enpresak hartutako neurrien kalitatea baloratuko da.

- Antolamendu-egitura. Gehienez 15 puntu.

  Antolaketa-egituraren egokitasuna baloratuko da, bai eta egitura horri atxikitako langileen kualifikazioa eta egokitasuna ere (muntaketen arduraduna ez da hartuko antolaketa-egituraren zatitzat). Kualifikazio eta egokitasun horretan kontuan hartuko dira kontratuaren xede diren lanen antzeko lanetan izandako esperientzia, titulazioak eta kontratua gauzatzean garatu beharreko jarduerekin zerikusia duten gaietako prestakuntza.

Prozeduran jarraitzeko, eskaintzek **gutxienez 25 puntu** lortu beharko dituzte atal honetan.

2. <u>Formula bidez ebaluatzen diren irizpideak:</u> 50 puntu gehienez.

Eskaintza ekonomikoak baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- **Proposamen ekonomikoa:** <u>45 puntu gehienez.</u>

  Prezio unitario, errekargu eta deskontu bakoitzari esleitutako gehieneko puntuazioa Orri honen **VI. Eranskin**ean adierazten da.

  Eskainitako **prezio unitario eta errekargu** bakoitzari dagokion puntuazioa proportzionalki ematen da balio hauen artean:

1. Lizitazioaren gehieneko prezio unitarioa.

2. Hauen arteko kantitaterik txikiena:

a) Eskainitako prezio unitario txikiena.
b) Lizitazioaren gehieneko prezio unitarioa ken % 20.
c) Eskainitako batez besteko prezio unitarioa ken % 10.

Honela balioztatuko da: Orri honen **IX. Eranskinean** adierazitako lizitazioaren gehieneko prezio unitarioaren baliokidea den prezio unitarioa eskaintzen duenak zero (0) puntu jasoko ditu prezio unitario horretan eta gainerakoei formula matematiko hau aplikatuko zaie:

$$Ptn = \frac{(Pl - On)}{(Pl - Ol)} \times Pto.$$

(Pl= Lizitazioaren gehieneko prezio unitarioa; Pto= Esleitutako gehieneko puntuazioa; Ol= Kopururik txikiena, 2. atalaren arabera; On= Lizitatzaile bakoitzaren eskaintzaren prezio unitarioa; Ptn= Lizitatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa).

Proposamen bat neurrigabetzat edo ezohikotzat jotzen bada, entzunaldia emango zaio/zaie hura aurkeztu duen/duten lizitatzaileari/lizitatzaileei, eskaintzaren zenbatespena justifikatu dezan/dezaten eta eskaintzaren baldintzak zehaztu ditzan/ditzaten.

IFK-CIF Q2000541I

Ondorio horietarako, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo ahal izango da aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 20 portzentaje-unitate edo gehiago txikiagoa duen eskaintza (ondorio horietarako, eskaintzatzat hartuko da lizitatzaile batek eskainitako prezioak dagokien haztapenarekin biderkatzearen ondoriozko zenbatekoen batukaria).

Nolanahi ere, kontratazio organoak baztertu egingo ditu eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badu nabarmenki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo aplikatzekoak diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak –naziokoak nahiz nazioartekoak– urratzen dituztelako, horren barnean dela hitzarmen kolektibo sektorial indardunak urratzea.

Eskainitako **deskontu-ehunekoei** honako formula hau aplikatuko zaie:

$$Ptn = \frac{On}{Ol} \times Pto$$

(Pto = Esleitutako gehieneko puntuazioa; Ol = Eskainitako deskonturik onena; On = Lizitatzaile bakoitzak eskainitako deskontua; Ptn = Lizitatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa).

Deskonturik eskaintzen ez duten eskaintzek zero (0) puntu jasoko dituzte atal honetan.

- **Berdintasuna**: 5 puntu, gehienez.

  Kontratua gauzatzeari atxikitako giza baliabideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gutxienez 2 orduko prestakuntza emateko konpromisoa 5 punturekin baloratuko da. Horretarako konpromisoa hartzen ez duenari 0 puntu emango zaizkio irizpide honetan.

  Konpromiso hori betetzen dela egiaztatzeko, kontratistak, kontratua gauzatzen den bitartean eta urtean behin, enpresak edo prestatzaileak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, prestatzailearen beraren titulazioa adierazten duena, bai eta edukiak, iraupena eta bertaratutakoen izenen zerrenda ere.

IFK-CIF Q2000541I

17. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahai baten laguntza izango du. Mahai horrek SPKLren 326.2 artikuluan zerrendatutako eginkizunak beteko ditu, besteak beste, SPKLn eta haren erregelamendu-garapenean esleitzen zaizkionak. Honako hauek osatuko dute mahaia:

- Presidentea: DONOSTIA KULTURAko Ekonomia eta Finantza Arloko zuzendaria
- Idazkaria: DONOSTIA KULTURAKO Kontratazioa eta Erosketak Saileko administrari bat.
- Kidea: DONOSTIA KULTURAKO Baliabideen Administrazio eta Kudeaketako teknikari juridikoa.
- Kidea: DONOSTIA KULTURAKO Kontratazio eta Erosketen arduraduna.

18. ADITUEN BATZORDEA

Ez da halakorik.

19. KONTRATUA ESLEITZEA

Lote bakoitzaren esleipenerako lizitatzailea aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiak egin duen proposamena onartu eta gero, erakunde kontratugileak errekerimendua egingo dio lote bakoitzeko eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari. Honek, hamar baliodun eguneko epea izango du, errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, ondoko dokumentazioa aurkezteko:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izateko legeak ezartzen dituen baldintza guztiak eta Agiri honen 12. Klausulan eskaturiko gaitasun-, kaudimen-baldintza guztiak bete eta kontratatzeko debekurik ez zuela egiaztatzeko dokumentazioa, jarraian zehaztutako moduan.

   Aldi baterako enpresa-bat osatzeko xedea duten enpresaburuek aurkeztu duten proposamenaren kasuan, aipatu dokumentazioa enpresa-elkartea osatuko duten enpresa guztiei dagokienez aurkeztu beharko da.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera, jarduteko eta ordezkatzeko gaitasuna egiaztatzeko ziurtagiriak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridiko motaren arabera dagokionean.

   - Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

   - Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

IFK-CIF Q2000541I

Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren sinatzaile diren Estatuetako enpresei dagokien elkarrekikotasunaren inguruko txostena ez da aintzatetsiko.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien Estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

- Ordezkari gisa aurkezten diren pertsonek, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek Erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, (i) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen aitorpen erantzule sinatu bat aurkeztuko du.

Lizitatzaile batek **lote baterako baino gehiagorako eskaintzarik onena** aurkeztu badu, atal honetan eskatutako dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu ahal izango du (eskatutako dokumentazioa aurkezten duen lehen aldian), eta ez du horien kopiarik aurkeztu beharrik izango esleipendun gertatu den beste lote baterako.

(ii) Agiri honen 12. Klausulan eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentazioa.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Bere kasuan, Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:

  - Onartutako eta Merkataritza Erregistroan erregistratutako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan sartua balego; eta, bestela, dagokion erregistro ofizialean erregistratutako horiek. Merkataritza Erregistroan erregistratuta ez dauden norbanako enpresaburuek beren inbentario-liburuak eta Merkataritza Erregistroak legeztatuko urteko kontuak aurkeztuko dituzte.

  - Lizitatzaileak sinaturiko adierazpen erantzulea, bere negozio-bolumena adieraziz.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Bere kasuan, azken hiru urteotan emandako zerbitzuen edo egindako lanen zerrenda aurkeztuz egiaztatuko da eskaturiko kaudimena. Horien zenbatekoa, data eta hartzailea -publiko zein pribatu- jaso beharko da. Eskainitako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak luzatu edo ikus onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira,

IFK-CIF Q2000541I

hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean. Hartzailea subjektu pribatua bada, honek luzatutako ziurtagiri baten bitartez. Ziurtagiri horren ordez, bere esku dituen dokumentuak aurkezteko aukera izango du lizitatzaileak, bere adierazpen batekin batera. Aipatu dokumentuek emandako prestazioa egiaztatu beharko dute.

(iii) Lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan erori ez dela egiaztatzen duen testigantza judiziala edo administrazio-ziurtapena.

Eskumeneko agintaritzak agiri hori luzatu ezin badu, administrazio-agintaritza, notario publiko edo elkargo profesional kualifikatu baten aurrean emandako aitorpen erantzule bat aurkez daiteke.

2. Bere kasuan, kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak eta bitarteko materialak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

(i) Kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideei dagokienez, bere kasuan, aukeratutako lizitatzaileak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako langile guztien izen-deiturak, gehi eskatutako baldintzen betetzea egiaztatzen duten curriculum vitaeko beren fitxak:

    1. Titulu akademiko ofiziala.
    2. Eskarmentua dagokion arloan.
    3. Erakunde kontratugileak eska zezakeen beste edozein informazio.

- Hitz emandako giza baliabide horiek guztiak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

Nabarmendu, bestalde, datu pertonalen babeserako aplikagarria den arautegiak dioena betez eta giza baliabideei buruzko aurreko dokumentazioak barne daraman informazioaren izaera aintzat hartuz: (i) beren jasotzeak eta erabilerak datuen tratamendua suposatzen duela lizitatzailearen aldetik eta aipatua Tratamenduaren Arduradun dela; eta (ii) Klausula honetan ezarritakoa betez DONOSTIA KULTURAri egiten zaion informazio horren igortzea datuen komunikazio bat dakarrela eta lizitatzailea, kasu honetan, lagatzailea izango dela.

Horretarako, hautatutako lizitatzaileak aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta komunikazioari dagokienez datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian xedatutakotik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu. Bereziki, eta tratamenduaren arduradun gisa zaindu behar dituen beste betebehar batzuk alde batera utzi gabe, hautatutako enpresa lizitatzaileak, bere erantzukizun esklusibopean, interesdunen baimen informatua lortu beharko du, datu pertsonalen komunikazio hori gaitzen duena, eta hori behar bezala egiaztatu beharko du DONOSTIA KULTURAn, hala eskatzen zaionean.

(ii) Kontratua gauzatzeko hitz emandako bitarteko materialei dagokienez, bere kasuan, aukeratutako lizitatzaileak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du:

IFK-CIF Q2000541I

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako bitarteko materialak zehaztea, eskaturiko baldintzak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

- Hitz emandako bitarteko material horiek guztiek benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

Erakunde kontratugileak, halaber, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

3. Agiri honen 11. Klausulan aurreikusitako dagokion behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario akta aurkeztuko da, eskatzen den kaudimena duela eta/edo kontratura gutxieneko bitartekoak atxikitzeko konpromisoa beteko duela ziurtatzeko xedearekin lizitatzaileak beste erakunde batzuk erabiltzea aurreikusten badu, **II Eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

6. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko aitorpen erantzulea, **VII Eranskinaren** arabera.

Erakunde kontratugileak halaber, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik antzemanez gero, erakunde kontratugileak hiru eguneko epea eman ahal izango du, lizitatzaileak akats horiek konpontzeko.

Eskatutako dokumentazioa ez bada epe barruan aurkeztu edo aurkeztutako dokumentazioak zuzenezinak diren akatsak edo ez egiteak agertzen baditu, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da. Ondorioz, hala dagokionean lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3aren (BEZ gabe) pareko zenbatekoa ordaintzea eskatuko zaio, zehapen gisa. Eta eskaintzen sailkapenaren arabera ondoren datorren lizitatzaileari aipatu dokumentazioa aurkeztea eskatuko zaio.

Kontratazio Organoak lote bakoitzeko kontratuaren esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen diren egunetik gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak. Halaber, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez. Azkenik, erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, 15 eguneko epean.

20. KONTRATUA HOBETU ETA FORMALIZATZEA

IFK-CIF Q2000541I

Kontratuak formalizatuz hobetuko dira.

Kontratuak dokumentu pribatuan formalizatuko dira, lizitazioaren baldintzak zehaztasun osoz beteko dituztenak. Kontratuak formalizatzeko dokumentuetan ezingo da, inolaz ere, kontratazioaren baldintzak aldatzen dituen klausularik sartu.

Esleipendunak, halere, kontratuak eskritura publiko bilakatu daitezen eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak

Kontratu bana sinatuko da, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SArekin.

Formalizazioa jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidali eta hamabost baliodun eguneko epea igaro ondoren egingo da, inoiz ez aurretik.

Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuaren batera, kontratua burutu eta hurrengo hamabost egunetan argitaratu beharko da erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean. Gainera, formalizazioaren iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argiratu beharko da. Horretarako, kontratazio organoak iragarkia kontratua formalizatu eta 10 egunera igorriko du Europar Batasuneko Egunkari Ofizialera beranduenez.

Esleipendunari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla eta ezingo balitz/lira kontratua/k zehaztutako epearen barruan formalizatu, esleipendunak lizitazioaren dago(z)kion kontratu(ar)en oinarrizko aurrekontuaren -BEZ kanpo- %3aren pareko zenbatekoa ordaindu beharko du, zehapen gisa. Zenbateko hori dagokion behin betiko bermetik hartuko da, hasiera batean, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiko b) hizkian ezarritakoari kalte egin gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, lote bakoitzeko eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere aldez aurretik Agiri honen 17. klausulan eskatzen den dokumentazioa aurkeztuta, hamar egun balioduneko epearen barruan

IFK-CIF Q2000541I

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Dagokion kontratuaren arduradunak Festak Arloko Zuzendari Teknikoa, Kultura Ekintzako Zuzendaria, San Telmo Museoko Zuzendaria eta Ekoizpen Arloko Zuzendari Teknikoa izango dira.

Kontratuaren arduradunei dagokie kontratua gauzatzen dela gainbegiratzea eta behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, itundutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko, entitate kontratatzaileak esleitzen dizkien ahalmenen esparruan.

Kontratuaren arduradunak emandako argibideak derrigorrez betetzekoak izango dira kontratistarentzat. Jarraibide horiek zuzenean jakinaraziko zaizkio kontratistak izendatutako kontratuaren solaskideari edo arduradunari

22. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua jarraian adierazten diren baldintzen arabera exekutatuko da:

a) Kontratuaren baldintzetan, Administrazio Klausula Berezien Pleguan eta Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratistak aurkeztu duen eskaintzan zein kontratuaren interpretazioari dagokionez erakunde kontratugileak erakunde kontratistari eman

dizkion jarraibideetan adierazitakoa jarraituko da kontratua gauzatzeko.

b) Kontratua lan arloko, Gizarte Segurantzako eta laneko osasun eta segurtasun arloko indarreko lege-xedapen, arau eta konbentzio ororen mende dago.

Testuinguru horretan, beren ebaluaziorako balio-judizio bat egitea eskatzen duten irizpideen inguruko dokumentazioa barne hartzen duen 2. Gutun-azalean, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei -enpresakoak zein azpi-kontratatutakoak- aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute lizitatzaileek. Enpresa esleipendunak kontratu honen xede den jarduera gauzatuko duten langileei aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipenaren ebazpenean sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Horrez gain, kontratua esleitua izan eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien baldintzen inguruko eskatutako informazio guztia eskaintzera behartuta egongo da esleipenduna.

Kontratuaren gauzatzean zehar, langilearen maila profesionalaren arabera hitzarmen kolektiboak ezartzen duen ordainsaria ordaindu beharko du esleipendunak. Aipatu ordainsariak ezingo du, inolaz ere, hitzarmenean jasotako horren azpitik egon.

Atal honetan ezarritako konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra eta gauzatze-baldintza berezia izango da SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, erakunde kontratugileak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

IFK-CIF Q2000541I

c) Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.

d) Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak egokiro betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko erabiliz.

Xede horrekin, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpo-laguntzak jasoko ditu, kontratu-betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo horien auditoretza egiteko, bai eta lanak kalitate-maila egokiarekin garatzen direla egiaztatzeko ere.

Erakunde kontratugileak zerbitzuen inguruan eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztu beharko ditu kontratistak. Beharrezko laguntza guztia eskainiko du horretarako, kostu gehigarririk gabe. Zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa eman beharko du ere.

Kontratistak ez du oztoporik jarriko erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Hala ere, erakunde kontratugileak edozein motatako ez betetze edo eragozpen antzeman egiten badu, kontratistak izendatutako koordinatzaileari jakinaraziko zaio zuzenean. Honi dagokio, azken batean, zerbitzua eskaintzen duten langileen gainbegiratzea antolatzeko ahalmena edo, dagokionean, haiek zigortzekoa ere.

e) Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak izango dira. Kontratistarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio erakunde kontratugileari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanen horien edo gainerako betebehar guztien ondorioz.

Ondorio horietarako, kontratistak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

- Kontratistari soilik dagokio kontratua gauzatzera atxikitako lantaldeko kideak izango diren langileak hautatzea. Langile horiek, hala badagokio, baldintza-agirietan eskatutako titulazio- eta esperientzia-baldintzak bete beharko dituzte. Nolanahi ere, erakunde kontratatzaileak baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ahal izango du.

- Kontratistak ahalegina egingo du lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta aldakuntzak puntualak eta arrazoi justifikatuen ondoriozkoak izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez oztopatzeko, eta horren berri emango dio beti erakunde kontratatzaileari.

- Kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko ardura duen lantaldeko kideen gainean enpresa orori datxekion zuzendaritza-ahalmena modu erreal, eraginkor eta jarraituan gauzatzeko betebeharra.

  Bereziki, bere gain hartuko ditu soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, bai eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

- Kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren jarduera pleguetan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerarekiko eginkizunak gainditu gabe garatzen dutela.

- Kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere langile-taldekoa, eta honako betebehar hauek izango ditu:

  • Kontratistaren solaskide gisa jardutea erakunde kontratatzailearen aurrean, alde batetik kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko kideen eta, bestetik, erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzearen ondoriozko gaiei dagokienez.

  • Lana kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

  • Lantaldea osatzen duten langileek bete behar dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, bai eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea ere.

  • Kontratua gauzatzera atxikitako langileen oporrak antolatzea. Horretarako, kontratista behar bezala koordinatu beharko da erakunde kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

  • Entitate kontratatzaileari jakinaraztea kontratua betearazteari atxikitako lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak.

IFK-CIF Q2000541I

f) Kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileei –propioak zein noizean behinka azpikontratatzen diren enpresetakoak- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunari dagokiena barne), ez eta Gizarte Segurantzari edo zerga-esparruari lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartu dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartu beharko ditu kontratuaren gauzatzean gerta daitezkeen ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

g) Horrez gain, SPKLren 202. artikuluan xedatutakoa betez, hauek ezartzen dira egikaritze-baldintza berezi gisa (gizarte- eta ingurumen-izaerakoak):

- Jardueran sortutako hondakin guztiak ingurumen-irizpideen arabera kudeatuko dira, hiri-hondakinekin parekatu daitezkeenen gaikako bilketa aplikatuz, eta hondakin arriskutsu gisa sailkatutako ontzien eta hondakinen kudeaketa egokia eginez.

- Kontratu honen xedeari dagozkion lanak egiten dituzten langileentzako eskaintzan, kontratistak berak aplikagarritzat jotzen duen hitzarmen kolektiboa bete beharko du.

- Kontratistak neurriak ezarri behar ditu kontratua gauzatzeko atxikitako langileen bizitza pertsonala eta/edo familiakoa uztartzen laguntzeko, eta egiaztatu behar du, hala badagokio, azpikontratatutako enpresak ere neurri berak ezarri dituela. Neurri horien artean, familia-zamak dituzten langileen ordutegi-malgutasuna ziurtatzeko neurriak hartzeko betebeharra eskatuko zaio enpresari, edo familia-ardurak dituzten langileen denbora partzialaren eta denbora osoaren arteko mugikortasuna ziurtatzeko mekanismoak hartzekoa.

  Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, kontratistak zinpeko aitorpen bat aurkeztu beharko du urtero, eta, bertan, aplikatutako adiskidetze-neurriak, haien edukia, iraupena eta pertsona onuradunen zerrenda agertuko dira.

  Adierazpen hori Enpresa Batzordeak edo langileen legezko ordezkariek sinatu beharko dute, edo, bestela, lana eta familia bateratzeko neurrien onuradunek.

Kontratua egikaritzeko baldintza berezi horiek, halaber, kontratua egikaritzen parte hartzen duten azpikontratistei eskatu ahal izango zaizkie, eta kontratistari dagokio azpikontratista horiek betearazteko eta beteko direla bermatzeko mekanismoak antolatzea.

h) Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean, enpresa kontratistak erakunde kontratatzaileei jakinarazi beharko die zein den horniduraren xede diren materialek eta kontratua gauzatzeari atxikitako ibilgailuek metro koadroko duten eragin errealaren kalkulua. Kontratua egikaritzean kalkulu horiei egiten zaizkien aldaketak ahalik eta lasterren jakinaraziko zaizkie entitate kontratatzaileei.

i) Entitate kontratatzaileek eskatzen diotenean, enpresak informazioa eman beharko du langileei laneko arriskuen prebentzioaren alorrean emandako prestakuntzari buruz eta langileei emandako materialari buruz (NBEak).

IFK-CIF Q2000541I

j) Kontratistak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakotik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu. Eskubide digitalak bai eta datu pertsonalen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko beste edozein araudi ere, baldin eta aplikagarria bada kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan eta bere kabuz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik, kontratu horren arduradun gisa.

23. KONTRATUKO BETEBEHARRAK

Honakoak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira:

a) Kontratuaren betebehar nagusia betetzea bere klausuletan, Plegu honetan, Baldintza Teknikoen Pleguan, kontratistak aurkeztutako eskaintzan eta kontratuaren arduradunak kontratistaren Koordinatzailearen bidez emandako jarraibideen arabera.

b) Lan arloan, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez indarrean dauden lege-xedapenak betetzea, Agiri honen 22. Klausulako b) letran ezarritako baldintzetan. Testuinguru horretan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan langilearen maila profesional bakoitzari ezartzen zaion ordainsaria ordaindu beharko du kontratistak. Aipatu ordainsariak ezingo du, inolaz ere, hitzarmenean jasotako horren azpitik egon.

c) Kontratistaren eskaintzan kontratuaren gauzatzeari konprometitu zaizkion giza baliabideak -propioak zein azpi-kontratatutakoak- eta/edo bitarteko materialak atxikitzea kontratuaren gauzatzeari.

d) Zuzendaritza- eta antolaketa-ahalmenak dituen Koordinatzaile bat izendatzea. Koordinatzaile hori izango da erakunde kontratatzailearekin harremanetan jartzeko solaskide bakarra, eta hari egokituko zaio kontratuaren xede diren zerbitzuen zuzendaritza, eta bera arduratuko da esleipendunak kontratua gauzatzera atxikitako gainerako pertsonei lan-aginduak eta -jarraibideak zuzenean emateaz.

   Pertsona hori arduratuko da kontratua egikaritzean langileen legez kanpoko lagapena eragin dezakeen egoerarik ez dagoela edo erakunde kontratatzailearen eta kontratua egikaritzera atxikitako kontratistaren langileen arteko lan-harremanen adierazpena eragin dezakeen egoerarik ez dagoela zaintzeaz.

e) Agindu guztiak, lan egiteko irizpideak eta gidalerroak adieraztea langileei; hala, erakunde kontratatzaileak ez du inolako loturarik izango lan harreman horiekin, eta, edozein kasutan ere, ez du haietan eragingo. Orobat, kontratistak soilik aztertuko ditu langileen lan ordutegiak, ordu lizentziak edo baimenak, oporrak edo enplegatzailearen ahalmenen beste edozein adierazpen. Alabaina, kontratistak soilik arduratu behar du zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeaz, Agirietan finkatu den moduan.

f) Kontratua gauzatzera atxikitako giza baliabideen zuzendaritza- eta funtzionamendu-ahalmena kontratistari dagokio esklusiboki.

IFK-CIF Q2000541I

g) Jarduera garatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.

h) Uneoro indarrean dagoen arloko araudia betetzea zerbitzuen eskaintzan. Xede horietarako, kontratistak zein kontratistaren langileek egiaztagiri guztiak izan beharko dituzte, indarreko legediak edozein unetan eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla frogatu ahal izateko.

i) Behin betiko bermeak mantentzea eta berritzea.

j) Kontratua gauzatzen den bitartean, Agiri honen 27. Klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea, gutxienez.

k) Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte galera guztien kalte ordainak.

l) Kontratua behar den bezala garatu eta bete ahal izateko erakunde kontratugileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara edo bilera informatiboetara bertaratzea. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

m) Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatzea ezinezkoa balitz, erakunde kontratugileak ahalmena izango du zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

   Greba garaian, benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

n) Langileak aldatzea beren funtzioa behar besteko arduraz eta efizientziaz beteko ez balute, langile horiek behar adinako gaikuntzarik izango ez balute, zerbitzuak ematean kontu gutxi izango balute edo kontratua ongi garatzeko kaltegarri diren ekintzak burutuko balituzte. Hori, beranduenez hogeita lau orduko epean erakunde kontratatzaileak kontratistaren Koordinatzaileari horretarako eskaera egiten duenetik. Langileen aldaketek ez dute ekarriko inolako erantzukizunik erakunde kontratatzailearentzat, kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

   Langile horiek, beren jarduera hasi aurretik, dagokion baimena dutela egiaztatu beharko dute.

o) Gaixotasun, oporraldi, baimen, lizentzia edota istripuen ondoriozko bajek eragindako lan-absentziak estaltzeko ordezko langileak ipintzea; kontratatutako zerbitzuak behar bezala eta modu jarraituan ematen direla bermatuz. Hori, beranduenez hogeita lau orduko epean erakunde kontratatzaileak kontratistaren Koordinatzaileari horretarako eskaera egiten duenetik.

p) Agiri honetan, Azalean edota datu pertsonalen babesari dagokionez aplikagarri diren araudi nazionalean eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz datu pertsonalak babesteari dagokionez bete behar diren betebeharrak betetzea eta horiek bete direla egiaztatzea.

q) Kontratuaren arduradunari horniduraren eta zerbitzuen exekuzioaren berri ematea, hark eskatzen duenean, eta, nolanahi ere, gorabeheraren bat gertatzen denean.

r) Preskripzio Teknikoen Pleguan eskatutako konponketa eta ordezkapenetarako epea

IFK-CIF Q2000541I

betetzea.

s) Entitate kontratatzaileek adierazitako muntatze- eta desmuntatze-epeak ez betetzea.

t) Kontratua egikaritzen den bitartean, gutxienez, baldintza teknikoen agiriaren 2.d) klausulan zerrendatutako elementuak beti biltegian izatea, I. eranskinean zehaztutako ezaugarriekin.

Klausula honetako c), d), f), q), r), s) eta t) letretan aurreikusitako betebeharrak, bai eta aurreko 22. klausulako g) eta h) letretan ezarritakoak ere, funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoi berberak ez betetzea izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

24.1. DATUEN TRATAMENDUA KONTRATAZIO PROZESUAN ZEHAR

Lizitatzaile bakoitzak, lizitazio honen esparruan, erakunde kontratatzaileari jakinarazten dizkion ordezkarien, langileen eta/edo hirugarrenen datu pertsonalak, bai eta dagokion kontratua formalizatu eta/edo egikaritzeko hautatutako lizitatzaileak jakinarazten dituen gainerako datuak ere, erakunde kontratatzaileak tratatuko ditu, Tratamenduaren Arduradun gisa, adierazitako kontratazio prozesua kudeatzeko eta bi alderdien arteko kontratua formalizatu eta egikaritzeko xedeetarako. Hori guztia kontratazio publikoaren arloan ezarritako legezko betebeharren oinarri juridikoaren gainean (SPKL eta araudi osagarri eta/edo erlazionatuak).

Gorago aipatu diren datu pertsonalak kontratatzailearen legezko obligazioak betetzeko beharrezkoak diren erakundeei, organo publikoei eta/edo hirugarrenei jakinaraziko zaizkie (barne hartuta, egokia denean, gardentasunaren arloko betebeharrak). Testuinguru horretan, jasota uzten da beharrezkoa dela datu pertsonal hauek ematea eta datu horiek erakunde, organo publiko eta/edo hirugarrenei jakinaraztea, egokia denean. Beraz, datu horiek ematen ez badira eta/edo jakinarazpen horiek gauzatzen ez badira, lizitatzaileek ezingo dute kontratazio prozeduran parte hartu edo dagokien kontratua formalizatu eta egikaritu.

Hautatu ez diren lizitatzaileek emandako datuak gorde egingo dira kontratazio prozeduraren kudeaketa egokirako beharrezkoa den denboran zehar bakarrik eta, legezko obligazioak betetzeko, erakundeak errespetatu beharreko kontserbazio epe gehigarrian zehar. Hautatutako lizitatzaileak emandako datuak gorde egingo dira kontratuaren egikaritzearen kudeaketa egokirako beharrezkoa den denboran zehar eta, legezko obligazioak betetzeko, erakundeak errespetatu beharreko kontserbazio epe gehigarrian zehar.

Erakunde kontratatzaileak datuak babesteko ordezkari bat izendatu du. Interesdunek helbide honetara idatzi beharko dute harekin harremanetan jartzeko: dbo@donostia.eus.

Edonola ere, emandako datuen interesdunek eskubide hauek izango dituzte: (i) beren datu pertsonalak atzitzea eskatzea eta datuok zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu edo tratamendua aurkaratzea, egokia denean, Erregina Erregeordea, 8, 20003 Donostia posta helbidera zuzendutako idazki bidez; eta (ii) Kontrol Agintaritza eskudunaren aurrean erreklamazioa aurkeztea, batez ere beren eskubideak baliatu ondoren pozik gelditu ez badira.

24.2. DATUEN TRATAMENDUA KONTRATUA EGIKARITZEAREN ESPARRUAN

IFK-CIF Q2000541I

Kontratazio honen xedeak ez du, bere izaera dela-eta, erakunde kontratatzailearen konturako datu pertsonalen inolako tratamendurik hartuko, ezta ekarriko ere.

25. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

